

# Laguntza-gidaliburua COVID-19

2020ko ekaina



# OHARRAK



Dokumentu honek gaur egun bizi dugun alarma-egoerari aurre egiteko zehaztutako ildo espezifikoa jasotzen ditu. Hemen jasotakoez gain, indarrean jarraitzen dute administrazioek ETEen eskura dituzten gainerako tresnek.

Hori dela eta, dokumentu honetan jasotako ildoak ez badatoz bat zure antolakundearen premiekin, gomendatzen dizuegu Beaz taldearekin harremanetan jartzea, beste finantzaketa-zerbitzu edo -tresna alternatibo batzuei buruzko aholkuak eman diezazkizuten.



94 439 56 22



# Aurkibidea



1. Bizkaia Aurrera!

2. ETEentzako finantzatze-lerroak

3. Beste neurri interesgarri batzuk





# 1. Bizkaia Aurrera!

Lurraldea suspertzeko premiazko plana [12 neurriak]

# Bizkaia Aurrera!



1

Bizkaiko autonomoei eta besteren konturako bost langile edo gutxiago dituzten enpresa txikiei laguntzeko mikrokredituak.

2

Lanpostuei eusten laguntzeko eta langabezian dauden pertsonen kontratazioa sustatzeko enplegu-plan berezia.

3

Bizkaiko tokiko merkataritzan, kulturen, turismo-establezimenduetan eta ostalaritzan kontsumoa sustatzeko bonoak.

4

Renove Etxea Plana, Bizkaiko eraikuntzako gremioen artean jardura sustatzeko.

5

Elkargik abalaturako enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen maileguzen gabeziarako laguntza-programa.

6

Bizkaiko herrietan mugimendua, jardura, kultura eta kontsumoa sustatzeko barneko turismo-plana.

7

Industriari lotutako sektoreetako enpresa txiki eta ertainen eta bost eta ehun langile arteko enpresen ekonomia suspertzeko zuzeneko laguntzen programa.

8

Bizkaia aurrera! digitalizazio-plana.

9

Ekonomia eta enplegua suspertzea errazteko zerga-eta tributu-neurriak.

10

Kultura, kirol eta Covid-19ren ikerketajardueretarako mezenasgoa handitzea, eta 2020an haiek lehentasunezko jardura izendatzea.

11

Bizkaian jardura, ekonomia, kultura eta aisialdia dinamizatzen dituzten jarduerak bultzatzea osasun-agintaritzak baimentzen baditu.

12

Bizkaia Gara, lurraldeko boluntarioen sarea, indartzea, eskatzen diren zeregin guztiak indartzeko eta laguntzeko.

# Bizkaia Aurrera!

## 1. neurria: Mikrokredituak (1/2)



### Mikrokredituak enpresa txikientzat eta Startupentzat

|                       |  |
|-----------------------|--|
| Xedea                 | Finantzaketa   |
| Helburua              | Bizkaiko bost langile edo gutxiago dituzten enpresa txikiei eta teknologia arloko Startupeii, gehienez ere 5 urtekoak direnak eta egoitza soziala Bizkaian dutenak laguntzeko mikrokredituak.  |
| Azalpena              | <ul style="list-style-type: none"><li>• 7.500 € arteko maileguak, interesik, komisiorik eta abalik gabe.</li><li>• Gehienez ere bost urtean itzultzeko eta urtebeteko gabealdiarekin.</li><li>• Bizkaiko bost langile edo gutxiago dituzten enpresa txikientzat, eta teknologia arloko Startupentzat, gehienez ere 5 urtekoak direnak eta egoitza soziala Bizkaian dutenak.</li><li>• Helburua: Merkataritza, ekoizpena eta antolaketa suspertzearekin lotutako gastuak ordaintzeko mikrokredituak, baina ez zorra birfinantzatzeko, ezta pasiboa berregituratzeko ere.</li><li>• Eskabideak aurkezteko epea: 2020ko ekainaren 3tik aurrera.</li><li>• Lehia sinplea: eskabidearen araberako ebazpena.</li><li>• Tramitazioa Seed Capital Mikro webgunearen bidez.</li><li>• Bateriaezina da COVID-19rekin lotutako Elkargi eta ICO lerroekin.</li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | BFA / Seed Capital Mikro   |
| Kontaktua             | <a href="http://www.seedcapitalbizkaiamikro.org/">http://www.seedcapitalbizkaiamikro.org/</a><br>Telefonoa: 944 27 50 78   |

# Bizkaia Aurrera!

## 1. neurria: Mikrokredituak (2/2)



### Mikrokredituak autonomoentzat

|                       |   |
|-----------------------|---|
| Xedea                 | Finantzaketa  |
| Helburua              | Bizkaiko autonomoi, ondasun-erkidegoei eta sozietate zibilei laguntzeko mikrokredituak.   |
| Azalpena              | <ul style="list-style-type: none"><li>• 7.500 € arteko maileguak, interesik, komisorik eta abalik gabe.</li><li>• Gehienez ere bost urtean itzultzeko eta urtebeteko gabealdiarekin.</li><li>• Bizkaiko autonomoentzat, ondasun-erkidegoentzat eta sozietate zibilentzat.</li><li>• Helburua: Merkataritza, ekoizpena eta antolaketa suspertzearekin lotutako gastuak ordaintzeko mikrokredituak, baina ez zorra birfinantzatzeko, ezta pasiboa berregituratzeko ere.</li><li>• Eskabideak aurkezteko epea: Zain, ekainaren 2./3. asterako aurreikusita.</li><li>• Lehia sinplea: eskabidearen araberako ebazpena.</li><li>• Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez izapidetzea.</li><li>• Bateriaezina da COVID-19rekin lotutako Elkargi eta ICO lerroekin.</li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | BFA / Beaz  |
| Kontaktua             | <a href="https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=11726&amp;Idioma=EU">https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=11726&amp;Idioma=EU</a><br>Telefonoa: 944 39 56 22  |



# Bizkaia Aurrera!

## 2. neurria: Enplegu-plan berezia (1/2)



### Manten programa

|                       |  |
|-----------------------|--|
| Xedea                 | Diru-laguntza  |
| Helburua              | Enplegu-plan berezia, 10 langile arteko 25.000 enpresa baino gehiagorentzat, enpleguari eusten laguntzeko, 2500 eta 3500 euro arteko laguntza zuzenen bidez (9.000 € gehienez erakunde onuradun bakoitzeko).   |
| Azalpena              | <ul style="list-style-type: none"><li>• Bizkaiko enpresei zuzenduta, edozein dela ere haien forma juridikoa, enpresaburu indibidual eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta Bizkaiko elkarte, fundazio eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk ere.</li><li>• Diruz lagundu ahal izango dira kontratuak gutxienez 6 hilabetez handitzea edo luzatzea, bai eta aldi baterako kontratua duten langileen aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea ere, 2020ko martxoaren 14tik urriaren 31ra bitartean formalizatuta.</li><li>• Handitze edo luzapenak: diru-laguntza 2500 €-koa izango da 45 urtetik beherako gizonentzat, eta 3000 €-koa 45 urtetik gorako emakumeentzat edo gizonentzat.</li><li>• Aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea: 3500 euro.</li><li>• Eskabideak aurkezteko epea: 2020/06/18tik aurrera, lehia askean.</li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | BFA  |
| Kontaktua             | <a href="https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/06/17/I-384_eus.pdf?hash=eb1e741b18877ce8939d1995187e69ae">https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/06/17/I-384_eus.pdf?hash=eb1e741b18877ce8939d1995187e69ae</a>  |





# Bizkaia Aurrera!

## 2. neurria: Enplegu-plan berezia (2/2)



### Kontrata programa

|                       |   |
|-----------------------|---|
| Xedea                 | Diru-laguntza   |
| Helburua              | Enplegu-plan berezia, 100 langilera arteko enpresetan pertsonak kontratatzen laguntzeko, baldin eta horiek langile-premia badute baina gaitasun ekonomikorik ez badute jarduerarik ez dutelako, gutxienez 6 hilabeteko lan- kontratuen bidez. Kontratu horiek 2020ko martxoaren 14aren ondoren langabezia geratu diren pertsonekin formalizatuko dira.  |
| Azalpena              | <ul style="list-style-type: none"><li>• Bizkaiko enpresei zuzenduta, edozein dela ere haien forma juridikoa, enpresaburu indibidual eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta Bizkaiko elkarte, fundazio eta irabazi- asmorik gabeko beste erakunde batzuk ere.</li><li>• Erakunde onuradun bakoitzari eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du 30.000 euroko muga gainditu, ezta 10 kontratazioko muga gainditu ere: aldi baterako kontratuetan, gehienez 2500 € gizonentzat &amp;lt; 45 urte eta 3000 € emakumeentzat eta gizonentzat &amp;gt;45 urte, eta kontratu mugagabeetan, gehienez, 3500 €.</li><li>• 2020ko martxoaren 16tik 2021eko martxoaren 31ra bitartean formalizatutako kontratuak.</li><li>• Ezin izango dira diruz lagundu urteko soldata gordina 8.000 € baino txikiagoa duten kontratuak, lanaldi partziala bada, 14.000 € lanaldi osoko kontratuatarako.</li><li>• Eskabideak aurkezteko peea: 2020/06/18tik aurrera, lehia askean.</li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | BFA   |
| Kontaktua             | <a href="https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/06/17/l-384_eus.pdf?hash=eb1e741b18877ce8939d1995187e69ae">https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/06/17/l-384_eus.pdf?hash=eb1e741b18877ce8939d1995187e69ae</a>   |

# Bizkaia Aurrera!

## 5. neurria: Elkargi maileguen gabezia



### Elkargi maileguen gabezia

|                       |   |
|-----------------------|---|
| Xedea                 | Gabealdia   |
| Helburua              | Mailegurik ezari aurre egiteko laguntzen programa, Elkargik abalaturako ETE eta autonomoentzat.   |
| Azalpena              | <ul style="list-style-type: none"><li>• Elkargik abalaturako maileguak birfinantzatzeko laguntzak.</li><li>• Sei edo hamabi hilabeteko gabealdia eskatzeko aukera, printzipalaren itzuli gabe.</li><li>• Ordaindu gabeko kapitalaren gaineko % 0,3ko komisioa ordaintzeko ekarpena.</li><li>• Norentzat:<ul style="list-style-type: none"><li>• Bizkaiko autonomoak eta besteren konturako bost langile edo gutxiago dituzten enpresa txikiak.</li><li>• Lanean jarraitu arren krisiak jota gertatu diren autonomoak eta enpresa txikiak.</li><li>• Jarduera normala berreskuratzeko laguntza behar duten enpresa txiki eta ertainak.</li></ul></li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | Elkargi   |
| Kontaktua             | <a href="https://web.bizkaia.eus/eu/elkargi-mailegurik-ezari-aurre-egiteko-laguntzen-programa">https://web.bizkaia.eus/eu/elkargi-mailegurik-ezari-aurre-egiteko-laguntzen-programa</a><br>Telefonoa Elkargi Bizkaia: 944 238 228   |



# Bizkaia Aurrera!

## 7. neurria: Suspertze ekonomiko adimenduna



### Suspertze ekonomiko adimenduna sustatzeko zuzeneko laguntzak

|                       |  |
|-----------------------|--|
| Xedea                 | Diru-laguntza  |
| Helburua              | Industriari lotutako sektoreetako enpresa txiki eta ertainen eta bost eta ehun langile arteko plantilla duten enpresen suspertze ekonomiko adimenduna sustatzeko zuzeneko laguntzen programa.  |
| Azalpena              | <ul style="list-style-type: none"><li>• Merkataritza-orientazio argiko epe laburreko ekintzen bidez, enpresaren suspertze ekonomikoa eta komertziala sustatzeko proiektuetarako laguntza, eta baita merkataritza suspertzeko ekintza horietarako beharrezkoak diren ekoizpen- eta antolaketa-hobekuntzak ere.</li><li>• Langileen barne-gastuak, kanpo-gastuak eta ibilgetu materialeko inbertsioak diruz lagunduko dira, % 50ean; gehienez 15.000 € eta gutxienez 3.000 €. Digitalizazioarekin, ekonomia zirkularrarekin eta ingurumen-inpaktuaren murrizketarekin lotutako proiektuetarako, diru-laguntza % 65ekoa izango da.</li><li>• Eskabideak aurkezteko epea: 2020/06/01etik 2020/06/30era.</li><li>• Gastuak gauzatzeko epea: 2020/03/14tik 2020/12/31ra.</li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | BFA / Beaz   |
| Kontaktua             | <a href="https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=11725&amp;Idioma=EU">https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=11725&amp;Idioma=EU</a><br>Telefonoa: 944 39 56 22   |



# Bizkaia Aurrera!

## 9. neurria: Tributuen eta zergen arloko neurriak (Sozietateen gaineko Zerga)



### Sozietateen gaineko Zergaren kuota efektiboaren aparteko kenkaria (2019ko zergaldia)

- 2020ko lehen sei hilekoan gutxienez eragiketen bolumena 2019ko aldi berean baino % 25 txikiagoa eta kontabilitate-etekina % 50 txikiagoa izan duten Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek % 60rainoko aparteko kenkaria aplikatu ahal izango diote 2019ko ekitaldiko kuota efektiboari. Kenkari horren zenbatekoa 2020ko ekitaldiko helburu hauetakoren batera bideratu beharko da:
  - 2020ko ekitaldiko zerga-oinarri negatiboa konpentsatzera.
  - Aktibo ez-korrante berriak eskuratzera.
  - Ikerketa- eta garapen-jarduerak edo berrikuntza-jarduerak egitera.
  - Ikerketa, garapen edo berrikuntza proiektuetan parte hartzera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 64 bis artikuluan ezarritako baldintzetan.
  - Lan-kontratu mugagabea duten pertsonak kontratatuz enplegua sortzera.
  - Mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertsioak egitera.
- Zergadunak ez badu paragrafo honetan araututako kuota efektiboaren aparteko kenkariaren zenbateko osoa aurreko zenbakian adierazitako helbururen batera bideratzen bertan ezarritako baldintzekin, bere xederako erabili ez duen zenbatekoa 2020ko ekitaldiko kuota efektiboari gehitu beharko dio, dagozkion berandutze-interesekin batera.

# Bizkaia Aurrera!

## 9. neurria: Tributuen eta zergen arloko neurriak (Sozietateen gaineko Zerga)



### Sozietateen gaineko Zergaren beste kenkari batzuk

- **Enplegua sortzeagatiko kenkari gehitua:** honako espezialitate hauek aplikatuko dira 2020ko ekitaldian egiten diren lan-kontratu mugagabeei dagokienez.
  - Aipatutako 66. artikulua 1. paragrafoaren lehen lerrokadan lanbide arteko gutxieneko soldatari dagokionez aurreikusitako igoera ehuneko 50ekoa izango da.
  - Kontratutako pertsona bakoitzari aplikatu beharreko kenkariaren gehieneko muga, aipatutako 66. artikulua 1. paragrafoaren bigarren lerrokadan ezarritakoa, urteko soldata gordinaren ehuneko 25 izango da, 7.500 euroko mugarekin.
- **Mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatiko aparteko kenkaria.** Partaidetzak harpidetzeagatik edo eskurazteagatik 2020ko ekitaldian ordaindutako kopuruen gaineko kenkariaren % hauek dira:
  - % 10 mikroenpresatzat, enpresa txikitzat edo ertaintzat hartzen diren enpresentzat.
  - % 15 enpresa berrientzat edo sortu berrientzat, mikroenpresatzat edo enpresa txiki edo ertaintzat hartzen badira.
  - % 20 mikroenpresatzat, enpresa txikitzat edo ertaintzat hartzen diren enpresa berritzaileentzat.
- **Ezohiko amortizazio azeleratua:** 2020/05/06tik 2020/12/31ra bitartean eskuratzen diren ibilgetu materialeko elementu berriak, funtzionatzen hasten direnetik aurrera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aurreikusitako gehieneko amortizazio-koefizientea 1,5 koefizienteaz biderkatuz ateratzen den koefizientearen arabera amortizatu ahal izango dira.

4/2020 Foru Dekretu Arauemailea, maiatzaren 5koa

Argibide gehiago: [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) // Kontaktua: 946 125 500



## 2. ETEentzako finantzatze-lerroak

Finantzaketa, diru-laguntzak eta laguntzak

# ETEentzako finantzatze-lerroak

## Finantzaketa



### COVID-19 mailegua

|                       |  |
|-----------------------|--|
| Xedea                 | Likidezia / zirkulatzaila  |
| Helburua              | Edozein jarduera-sektoretako enpresentzako eta autonomoentzako maileguak, likidezia-beharrak finantzatzeko; horrela, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioak arindu ahal izango dira.  |
| Azalpena              | Euribor + %0ko maileguak, 5.000 € - 1.000.000 €artekoak, 5 urteko epean (1 gabealdi + 4). Urteko komisioa %0,375ekoa da, eta irekiera-komisioa %0,25ekoa. Gainera, Elkargiren partaidetza sozialaren %2 harpidetu behar da, mailegua amaitzean itzul daitekeena.<br>Osorik online izapidetzen da.<br><i>Startupen kasuan, Elkargik Aurrera instrumentua aukeratzea gomendatzen du.</i> |
| Erakunde kudeatzailea | Eusko Jaurlaritzza eta Elkargi, Finantzen Euskal Institutuaren bidez   |
| Kontaktua             | <a href="https://www.elkargionline.com/">https://www.elkargionline.com/</a><br>E-posta: <a href="mailto:comercialbizkaia@elkargi.es">comercialbizkaia@elkargi.es</a><br>Telefonoa Elkargi Bizkaia: 944 238 228   |

# ETEentzako finantzatze-lerroak

## Finantzaketa



### ICO abalak – Enpresak eta autonomoak

|                       |   |
|-----------------------|---|
| Xedea                 | Likidezia / zirkulatzaila   |
| Helburua              | Enpleguari eustea errazteko eta COVID-19ren ondorio ekonomikoak arintzeko, finantza-erakundeek enpresa eta pertsona autonomoei emandako finantzaketarako abal-lerro bat sortu da, haien zirkulatzaila-beharrei erantzuteko (soldatak, alokairuak, hornidurak, enpresa-ordaindukoak).  |
| Azalpena              | <ul style="list-style-type: none"><li>Autonomoei eta enpresei maileguak edo berritzeak emateko abalak, 2020/03/18tik 2020/09/30era bitartean formalizatuak edo berrituak. Abalaren epea bat etorriko da eragiketaren epearekin, gehienez ere 5 urtera arte.</li><li>Autonomoei eta enpresei egindako 1,5 M € arteko eragiketek (eragiketa batean edo batzuetan) minimisen barruan egongo dira eta ETEei eta ETEak ez diren enpresei zuzendutako 1,5 M €-tik gorako zenbatekoetan, Europako Batzordearen Estatuko Laguntzen Aldi Baterako Esparruan aurreikusitako baldintzak eta mugak aplikatuko dira.</li><li>Autonomoentzat eta ETEentzat, abalak eragiketa berrien eta berritzeen printzipalaren % 80 bermatuko du, eta gainerako enpresentzat, eragiketa berrietarako % 70 eta berritzeetarako % 60.</li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | ICO, abalen lerroan parte hartzeko esparru-kontratua sinatuta duten finantza-erakundeekin lankidetzan.  |
| Kontaktua             | <a href="https://www.ico.es/web/ico/linea-de-avales">https://www.ico.es/web/ico/linea-de-avales</a><br>Laguntzeko telefonoa: 900 121 121  |



# ETEentzako finantzatze-lerroak

## Diru-laguntzak



### Bideratu COVID-19

|                       |  |
|-----------------------|--|
| Xedea                 | Enpresak berregituratzea   |
| Helburua              | COVID-19ren hedapenaren ondoriozko krisiaren ondorioz dauden enpresak berregituratzeko eta garatzeko programa.   |
| Azalpena              | <ul style="list-style-type: none"><li>• Erauzketako, eraldaketako, ekoizpeneko, lotutako zerbitzu teknikoetako eta informazioaren eta komunikazioen gizarteko industriako ETEentzako laguntzak, COVID-19ren ondorioz krisian badaude eta ez aurretik. 20 langile baino gehiago izan behar dituzte eta ez dute enplegurik suntsitu behar.</li><li>• Diruz lagunduko dira industria- eta finantza-izaera berregituratzeko eta bultzatzeko aldi baterako laguntza-neurriak, krisialdian dauden enpresek egindako bideragarritasun- edo berregituraketa-planetan sartzen direnak. Laguntzaren zenbatekoa 2020ko ekitaldirako aurrekontuan jasotako kutxa-fluxu negatiboaren %100era iritsi ahal izango da, 800.000 euroko gehieneko mugarekin, eta horrela, 12 hilabeterako plana jaso ahal izango da, 2020ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita.</li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | SPRI   |
| Kontaktua             | <a href="http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/04/2001850a.pdf">http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/04/2001850a.pdf</a>  |



# ETEentzako finantzatze-lerroak

## Laguntzak



### Inplantariak

|                       |   |
|-----------------------|---|
| Xedea                 | Telelana ezartzea   |
| Helburua              | Euskadiko autonomoei eta ETEei telelana berehala ezartzeko eta aholkularitza emateko zerbitzua.   |
| Azalpena              | Zerbitzu honen bidez, aholkulari teknologiko bat ETEen eta pertsona autonomoen eskura egongo da prozesu osoan, beharrak zehazteko eta proiektua modu erraz, arin eta indibidualizatuan ezartzeko: <ul style="list-style-type: none"><li>• Berehala ezartzea, modu telematikoan.</li><li>• Telelanean egin daitezkeen enpresako arloak identifikatzea.</li><li>• Laguntza jarraitua benetan ezarri arte.</li><li>• Aholkulari teknologikoen taldea</li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | SPRI  |
| Kontaktua             | <a href="https://www.spri.eus/es/inplantalariak/">https://www.spri.eus/es/inplantalariak/</a><br>Laguntzeko telefonoa: 902 702 142  |





### 3. Beste neurri interesgarri batzuk

# Beste neurri interesgarri batzuk

## Epeak luzatzea eta laguntzak aldatzea



| Erakundea  | Aldaketa mota  | Edukia   |
|--|--|--|
| BFA  | Bizkaiko Foru Aldundiak lanean jarraitzen du epe administratiboak osasun-krisiaren ondorioz sortutako egoera berrira egokitzeko eta, horrela, enpresei eta ekintzaileei baldintza hobek errazteko. Ekonomia Sustatzeko Sailak hainbat neurri onartu ditu Beaz eta Seed Capital zuzendaritza eta sozietate publikoek ematen dituzten zerbitzuekin lotuta. | <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Administrazio-epeak etenda</b> daude Alarma Estatuan.</li><li>• <b>2 hilabetetik hilabete 1era murriztu da</b> Beaz sozietateak kudeatzen duen sozietateen gaineko zergaren <b>64 bis</b> artikularen esparruan aurkeztutako I+G+B proiektuen balorazioa.</li><li>• <b>2019ko</b> berrikuntza-, sorkuntza- eta nazioartekotze-<b>programak</b> gauzatzeko epea <b>6 hilabetez luzatzea</b>, gastu-kontzeptuak malgutuz. Helburua da proiektuak osorik gauzatu ahal izatea.</li><li>• <b>Berrikuntza Funttsaren gabealdia</b> urtebetetik 2 urtera <b>luzatuko</b> da 2018/01/01etik 2020/12/31ra bitartean formalizatutako eragiketetarako.</li><li>• Seed Mikro enpresaren maileguen eta Seed Capital Bizkaiak kudeatzen dituen I, Bi eta FEIS funtsen <b>kuoten itzulketa</b> 6 hilabetera arte <b>atzeratu</b> da.</li><li>• Bic Bizkaia, Bic Bizkaia Ezkerraldea eta Design Kabi inkubagailuen <b>alokairu-kuoten</b> ordainketa 3 hilabetez <b>atzeratzea</b>.</li><li>• Ekonomia Sustatzeko Sailaren laguntza-programen ordainketak eta hornitzaileentzako <b>ordainketak</b> ahalik eta gehien <b>bizkortzeko</b> konpromisoa.</li></ul> |
| +info: <a href="https://web.bizkaia.eus/es/web/area-de-prensa/noticias/-/news/detailView/20826">https://web.bizkaia.eus/es/web/area-de-prensa/noticias/-/news/detailView/20826</a> |  |  |

# Beste neurri interesgarri batzuk

Laguntzak beste kolektibo batzuentzat



## «COVID-19» laguntzak euskal merkataritza sektorearentzat

|                       |  |
|-----------------------|--|
| Xedea                 | Gastu arruntak eta operatiboak ordaintzea  |
| Helburua              | Zuzeneko laguntzak, norberaren konturako langileek edo autonomoek, mikroenpresek eta COVID-19ren (euskal txikizkako merkataritza) krisiak eragindako enpresa txikiek beren gain hartutako gastu operatibo eta korronteei laguntzeko.   |
| Azalpena              | <ul style="list-style-type: none"><li>Norberaren konturako langileentzako edo autonomoentzako laguntzak, ondasun-erkidegoentzat eta sozietate zibilentzat, mikro enpresentzat eta txikizkako merkataritza-jarduera nagusi gisa txikizkako merkataritza-jarduera duten txikizkako enpresa txikientzat (helburu horrekin erositako produktuak edo salgaiak merkatuaren esku jartzea, haiek funtsean aldatu gabe).</li><li>Diru-sarrerak gutxienez % 75 murriztu behar izan dituzte 03/14tik 04/13ra, 2019ko aldi berarekin alderatuta, edo, bestela, aurreko hilabetearekin alderatuta.</li><li>Honako gastu hauek estaliko dira: alokairu-gastuak eta hipoteka-maileguen kuotak (3 hilabete jarraian), alarma-egoeraren aurreko stocka eskuratzea, hornidura-gastuak, aseguruak, COVID-19ren inpaktua kudeatzeko aholkularitza eta merkataritza-elkarteetan afiliatzeko gastuak (3 hilabete). 2020/03/14tik 2020/08/31ra bitartean egindako gastuak (stockak izan ezik).</li><li>Gastuen % 100eko diru-laguntza 750 € eta 3.000 € artean.</li><li>Eskabideak aurkezteko epea: hilabete, 2020ko maiatzaren 30etik aurrera.</li></ul> |
| Erakunde kudeatzailea | Eusko Jaurlaritza  |
| Kontaktua             | <a href="https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/05/2002092a.pdf">https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/05/2002092a.pdf</a><br>Eskaera: <a href="https://www.euskadi.eus/servicios/1103201/web01-tramite/es/">https://www.euskadi.eus/servicios/1103201/web01-tramite/es/</a>  |